

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1039

2333/2019 EBAZPENA, abenduaren 17koa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena. Honen bidez lau urterako izendatu da, aldi baterako eta luzatzeko aukerarekin, M.^a Teresa Martínez Zabaleta andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko atal sanitarioko buru, espezialitate honetan: Neurologia (patologia baskularra eta integrazioa).

Martxoaren 7ko 210/2019 Ebazpenaren bitartez, deialdia egin zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdea ESiko atal sanitarioko buru lanpostua lehiaketa bidez betetzeko, espezialitate honetan: Neurologia (patologia baskularra eta integrazioa).

Epaimahai kalifikatzaileak aurkeztutako eskabideak baloratu ditu, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta M.^a Teresa Martínez Zabaleta andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: pertsona hori izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko ESiko atal sanitarioko buru, espezialitate honetan: Neurologia (patologia baskularra eta integrazioa).

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat, zera

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– M.^a Teresa Martínez Zabaleta andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdea ESiko atal sanitarioko buru izendatzea aldi baterako, espezialitate honetan: Neurologia (patologia baskularra eta integrazioa).

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, eta aldi baterakoa izango da luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunean ezarritakoarekin bat, eta ondorioetarako data hau izango da: 2019ko abenduaren 13a.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, ezpada luzapena onartzen, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik, aldeztu aurretik kontrako espedientea dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko 6. atalean aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Ebazpen hau interesdunari eta Donostialdeko ESIari jakinaraztea.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen honi dagokion iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2019ko abenduaren 17a.

Zuzendari gerentea.

(53/2019 Ebazpena, urtarrilaren 24koa)

Pertsonaleko zuzendaria,
ESTHER LITAGO SOLA.